

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Basaburua

Aurkibidea

Udalerria: Basaburua

Sarrera



Nafarroa iparraldean dagoen udalerri txiki eta euskalduna da Basaburua. Hamahiru herri eta etxaldeak osatzen dute Basaburua: Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Beruete, Erbiti, Gartzarun, Igoa, Ihaben, Itsaso, Ola, Orokieta eta Udabe. Iparraldean, Ezkurra, Eratsun, Saldiaseta Beintza-Labaien udalerriekin egiten du muga; ekialdean, berriz, Ultzamaekin; mendebaldean, Leitza eta Larraunekin; eta hegoaldean Imotzekin. Bertako jarduera ekonomiko garrantzitsuena abeltzaintza bada ere, beste hainbat jarduera aipagarri ere badaude, industria, garraioa eta eraikuntza, besteak beste. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea. Argazkian Igoa herria ageri da (basaburua.org-etik jasoa).

- **Biztanleak:** 876
- **Euskaldunak:** -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **19**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **4**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **4**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Bera eta Lesakako Ondarea, Jon Abril
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Angel Aldaz Laseca (1914)

Ihabenen (Basaburua) jaioa 1914an. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Eltzaburukoa (Ultzama).

Pedro Alsua Urkiola (1927)



1927-02-02an jaioa Orokietan. Beti bertan bizi izandakoa. Aita Beruetekoa eta ama Leitzakoa zituen; nekazariak biak. Bera sei senidetan hirugarrena dugu. Soldadutzan arrantxero izana, eta ondoren mendian lan egindakoa. [Maria Joxepa Noain Intxausti](#)ren etxera ezkondu zen, Ola auzoan. Seme-alabak herririk kanpora bizi dira.

Felix Arangoa (1950)

Joxe Antonio Arangoa Zia (1946)



Gurasoak Berueteko Elixaldea etxean bizi zirela Iruinean jaioa, 1946-06-19an. Bederatzi senidetan zaharrena dugu, eta beti Elixaldean bizi izandakoa. Aita Beruetekoa (Elixaldekoa) eta ama Aldatzekoa, nekazariak biak. Lanean Irurtzungo fabrika batean aritu zen baina beti izan du baserriko lana ere; horretan, badu segida semearekin. Euskararekiko kontzientzia soldadutzan sartu zitzaion. Lan asko egin da herrian eta bailaran ere bai: herriak hustu ez daitezen, baserritarrentzako aurrerapenak, eskolak...

Bautista Auza Agirre (1934)



1934ko abuztuaren 23an jaioa, Itsasoko Azpikoetxean (Basaburua bailara). Bertan bizi izan da beti. Aita itsasoarra eta ama Beruetekoa, bailara berean; biak nekazariak. Amak euskaraz baizik ez zekien. Bost senidetan (gehi umetan hildako beste bat) laugarrena eta gizonezko bakarra. Jaunsaratseko Kontxi Alsuarekin ezkondua, zeinak, euskaldun berria izanik ere, bertako ikastola sortzen lan handia egin baitzuen. Eskolara hamabi edo hamairu urte arte besterik ez zen joan, etxeko lanetan laguntza behar baitzuten. Behiak zaintzen aritu zen 18 urte zituen arte. Orduan ikazkin hasi zen inguruko mendietan eta urte bat geroago Iratira joan zen baso-lanera. Han bi urte egin ondoren bere sortetxera itzuli eta han bizi da oraindik.

Andres Etxeberria Arano (1910)

Arraratsen (Basaburua) jaioa 1910ean. Gurasoak biak Basaburukoak zituen: aita Arraraskoa bertakoa eta ama Igoakoa.

Maria Ezkurra Barberena (1931)

Igoako Otxanbelako borda baserrian jaioa. Zortzi senideren artean bigarrena. Elkarriketa egin zitzaionean Burlatan bizi zen. Etxekoandrea da.

Euxebio Ezkurra Eugi (1943)



1943ko martxoaren 29an Orokietako Apezenean jaioa. Aita etxe berean sortua, eta ama Beuntzakoa (Atetz bailara); nekazariak biak. Bi anaietan zaharena. Abeltzaina da eta beti etxe berean bizi izan da. Bertsozalea; birraitona ere (Pedro Juan Ezkurra) bertsolaria zuen eta haren bertso batzuk gogoan ditu.

Maria Luisa Goikoetxea Mariezkurrena (1951)



Erbitin (Unanua etxean) jaioa. Ama Ezkurrakoa zuen (Portoneko bordakoa), eta etxeko lanetan aritzen zen; aita berriz, Intzakoa zen (Araitz bailaran), eta laboraria zen. Hiru anai-arrebatan zaharrena eta neska bakarra. Beti Erbitin bizi izan da, eta etxeko lanetan eta geriatrikoan aritua da. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba ditu.

Felisa Goizueta (1930)

Maria Goizueta

Maria Magdalena Huarte Alsua (1933)



Igoan jaioa, 1933ko ekainaren 10ean, Karakotxea etxean. Bi gurasoak, Igoakoak zituen, nekazariak biak. Bera hamabi senidetan hirugarrena dugu. [Joxe Mari Urriza](#)rekin Martiñenera ezkondua, zazpi seme-alaba hazi ditu; beti baserriko lanetan aritua.

Joxe Mari Jaunarena Ezkurra (1942)



1942-01-15ean jaioa, Gartzaronen, Joaintzene Zaharrean. 29 urtetan Erbitira ezkondu zen, Palazio etxera, eta beraz, aldameneari dauden bi herrion arteko diferentziak ezagutzen ditu. Bi gurasoak Gartzarongoak zituen; bera, bederatzi senidetan zaharrena. Erbitin gaztelera nagusitu den arren berak euskarari eutsi dion bakarretakoa da. 16 urtetatik 29ra bitartean mendian lanean ibilia da, eta geroztik, inguruko herrietako txerri-hiltzaile lanak egin izan ditu, orain berriro arte. Hiru seme-alaba ditu.

Juan Jose Leziaga

Maria Joxepa Noain Intxausti (1931)

1931ko urrian jaioa, Olako Casa Celestino baserrian, eta beti bertan bizi izandakoa. Bi gurasoak Oskotzekoak zituen (Imotz bailara), nekazariak, eta bera lau senidetan zaharrena da. [Pedro Alsua](#) rekin ezkondu dago eta baserria gobernatzen egin du lan beti.

Inazio Sala Iribarren (1953)



1953ko irailaren 17an jaioa, Beramendi herrian. Aita, Ultzamako Eltzaburu herrikoa, eta ama haran horretako Ilarregikoa, nekazariak biak. Bederatzi senidetan gazteena. Esne-abeltzaina da. Umetan aise hitz egindako euskara atzentzen ari zitzaioela-eta, kontzientzia hartu eta bertako hitzkerari eutsi dioten artean gazteenetakoa dugu gaur. Udabeko Kilimin zaharren bizi da.

Kamino Telletxea Jaunarena (1948)



Gartzaronen (Basaburua) jaioa eta beti bertan bizi izandakoa. Ama Gartzarongoa zuen; aita, Orokietakoa (Basaburua), nekazari baino lehen kaminero izandakoa zen. Bederatzi senidetan gazteena. Kamino etxean aritu da lanean eta kamarera gisa ere bai (Café Iruñan, kasurako).

Mari Tere Unanua Arretxea (1940)



Arraratseko Etxeandikobordan jaioa. Bi gurasoak nekazariak eta herri berean jaioak, baita senarra ere. Lau senidetan zaharrena dugu. Ezkondu eta gero nekazaritzan urte batzuk eman ondoren arrain-haztegi bat izan zuten.

Joxe Mari Urriza Matxain (1930)



Igoan jaioa, 1930eko apirilaren 10ean, Martiñene etxean, eta beti bertan bizi izandakoa. Aita Igoakoa zuen, etxe berean sortua, eta ama Arraratsekoa; nekazariak biak. Bost senidetan hirugarrena dugu. Nekazaria, badu segida semearekin. [Maria Magdalena Huarte](#)rekin ezkondua.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. San Juanetako "maiatza" Basaburua ibarrean (BAS-014/001)

San Juan bezperan sua egin eta gainetik salto egiteko ohitura. Mutil gazteek "maiatza" esaten zitzaion arbola ekarri, azala kendu eta nola ipintzen zuten. Gurutze bedeinkatuak.

2. Urteberriko kopla-apurrak Basaburuan (BAS-014/002)

Eguberri egunean kantatzen ziren koplak.

3. Errege egunaren bezperako joare-jotzea Ihabenen (BAS-014/003)

Errege egunaren bezperan gaztetxoak joareak joz irteten ziren.

4. San Juanetan "maiatza" Arraratsen (BAS-015/001)

San Juan bezperan "maiatza" esaten zioten arbola jartzeko ohitura.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com